

MAINTONEN POZA.

¡Begitu, begitu ze chairorik datorren aldatzik aldatz eta aurberarik aurbera, Goikotseko atso polita, biotz oneko Mainton agurgarria!

¿Bakutzue ze azkorrik dakarren Maintonen oin argalak bere gorputz issurtsua?

¿Bakutzue?... Ori da azkortasuna, ori chairotasuna, ori bizkortasuna! Eztoaz iñoz neskatillak iolasera (1), Mainton gurea eleisara datorren baño chairoago; choria bere kabira ioaten dan baño gogotsuago ta bizkorrago dator Mainton, bera bateatu zan eleisa zarrera.

¡A! Eztago neskatillarik, eztago choririk gaur, gure erriko atsocho au baño chairoagorik ez bizkorragorik.

Mirariturik eta arriturik datozen lagunak, eta Mainton dakusen guztiak (2) miraritzat dauke berechairotasun izugarria, eztakie zerk ipiñi daben Goikotseko atsochoa ain bizkor eta ain ibiltari.

— Amama — dirautso — bere alboan datorren batek — ¿etziñean egongo askoz obeto oian, amama laztana, eguraldi au dala kanpora urten barik?

— Chocho (3), iñok egin baiok, naiko egoterik egin ioat oian; ire aitaita Peru il zanetik gora oian egon nok? Ezteritzak naiko atsoroterik dala sei illabetean, issera-artean, eguzkiaren papu gorriak ikusi barik egotea?

— Bai, amama; bana oindiño makal zagoz, zeure pozak ezetz badiñotzu be.

— Poza dok, bai, Kassinto, ezetz diraustana, ta, oetik atara-ta, ona

(1) *Iolas* = baile (en Chorierry).

(2) *Dakusen guztiak* = cuantos la ven.

(3) *Chocho* = equivale á *queridito*.

nakarren eskua, pozaren eskua baiño besterik eztok.... Ire meza barria, Kassinto, ire meza barria entzutearen naiatok...

— Baña, amama....

— ¡Zer?...; Eztok gura ire meza barria entzun daiadan ala?

— Bai, bai, amamacho, jeztot gura izango ba!... Baña ekazu eskua, arriren baten *laprast* eginda iausi etzaitezan.

Eztauko Maintonek *laprast* egiteko bildurrik, baña llobearen eskuagaz batutearren, pozarren emoten deutso bere esku issurtu mamin gichikoa, dirautsala:

— ¡Au poza, Kassinto, ze poza ire esku bedeinkatuagaz nire esku pekataria batutea! Eutso, bai, esku zar, pekatuan zarturiko esku zimel au, ¡ ia, ire esku dontsu orren ontasunean atsegindu deitela!....

Ta alkarrí deutsela datozi orain biak, amama zarra ta lloba abade gaztea, zein baño zein pozago, zein baño zein bizkorrago, zein baño zein berbaguratsuago.

Baita zein baño zein pozago datozi euron atzetik datozenak be: Kassinto jaunaren aita, ama, anai-arrebak, isseko-osabak, lengusu-lengusiañak, aide edo senide guztiak eta adiskide maitegariak. Danok pozik; baña onen poza issilla da, berbarik bakoa; bada eztakie zer esan, ikusirik batutasun ain ikusgarrian batuta Goikotseko atsocho zarra ta Kassinto jaun abade barria.

Ta elizpean euron etorrereari begira dagozan gizonezko ta andrazko guztiak, mutill ta gizon, neskato ta andra danak, batbatera diñoe, batzuk aboz, besteak biotzean:

— ¡Ze bizkorrik datorren Goikotseko Mainton!

— ¡Ze apalik iatorkun eta zelango onusaiña dakarren Goikotseko abade barriak!...

II

Arimez beterik dago eleisea ordu onetan. Eta arimez danak dagoz oinche altarara adi, euron begiak altazaruntz doaz.

An dakuse Maintonen llobea, mezeari iagokazan iantziakaz iantzirik, meza doneari asiera emon gurariak.

Altaretik ur, Kassinto jaunaren gorputzagandik urrago egotearren, iarri dira Mainton, bere semea ta errana. Ta onen atzechoan ikusi geinkez abade barriaren anai-arrebak, isseko-osabak eta urecko senide guztiak.

¡A!; ze ederto erakusten daben danok, arpegien bitartez, arimetan dauken poz ugaria!

¡Tira! Así da mezea, así da Kassinto jauna lenengo aldiz egiten lurbira onetan egin leiken eginkizunik andiena, ospatsuena, itzaltsuena. Mezea así da, ta oinganik aurrera, Maintonen adi ta abade barriari begira egon gura dot, bada nire begiak eurokana doaz bata baño bestea zaleago.

Meza danak dira ederrak, danak ikusgarriak; baña Maintonen eritzia oraiñ, bere llobeak mezachoa amaitu ta gero, iakin gura badozue, zer entzun zeinkeen ondo dakit. Mainton zarrak esango deutsue (ta guzurrik esan barik, bada biotzetik berba egiten dau beti gure atsochoak), esango deutsue, iñioiz be eztabela entzun bere Kassintoren mezachoa baño meza ederrago ez ikusgarriagorik.

Meza eder, ospatsu gozo gozoak entzun daroaz berak urtaro eliza bero-netan, arako Irailgo. Andra Marietan, Bagilgo Donianetan eta abar, iru-abade galantik iantziak altaran, eta eztarri zaratatsudun erezlarriak koruan direala....

Baña bere Kassintochuren mezea baño ze-ra-go-rik....

Eta benetan izan da ederra Maintonen llobearen meza barria. Eder ederra.

Meza-emolleak lotzaz, baña iazean eta ganora ederragaz, begiak baño biotza gorago ipiñita, ederto ta ederto emon dau bere lenengo mezea.

Musikalariak atsegindu dabez gure belarri soiñu-zaleak, euron zarata legun eta gozoakaz.

Eta sermolaria.... jori da sermolaria!... sekula entzun eztogun lango berbaldia bota deusku. ¡A, ze gauza ederrak irakatsi deuskuzan! ¡A, ze egjak! ¡A, zelango berbaldia eutzun-erazo deuskun!

Poztu zeintikez, bai, Goikotseko atsochoa, poztu zeintikez, amama zorionekoa

Baña, atsocho Jainkogetsua (1) ¿zer... zer da orain zugan dakusguna? (2). Len azkorrik eta bizkorrik, eta orain burua makurtuta zagoz, eta eztaldú deuskuzu zeure arpegi pozez apaindua.

¡Tira, Mainton zoritsua; ia, ipiñi zutik buru urtetsu ori, bada gorputza be lastercho zuzendu bear dozu, lloba maiteagana eldu, ta mosu andi andi bat bere eskuan ezarteko!

¡Tira. Mantón, tira!

III

Abade barriari eskumuna egiteko ordua da oincheurrean...

(1) *Jainkogetsu* = devote, a.

(2) *Dakusguna* = lo que vemos.

Bai. Eleisan dagozan gizon, andra, mutil eta ume danak, batak baño besteak lenago eskumuna egin gurarik, arbin dagoz Kassinto jaunaren eskua koissu-arte.

Baña icharon, icharon beie apur baten. Abadeak diardue oinche Maintonen llobeari mun emoten; onenurrengo aita-besoetakoak dira; urrengo, abade barriaren gurasoak: eta onen atzetik, Mainton, gure Maiton polita.

Onen atzetik, Maintonen atzetik ioango da, mun egitera, elizan dagoan gente enparaua.

Maintonen atzetik, bai.. Eztago bera gaur, bere chandea iñori saldu-teko.

¡Ez orisse!...

Peru Goikotseko, zeruan dagoan legez, lurrean balego, ari bai, ta ari bakarrik ichiko eutsan, bere seme-erranan urrengo, bere aurretik..... ioaten.... Beste iñori... ezta... ezta ezgaitik be.

Ara an, Maintonek iaso dau, goratu dau bere burua, iagi dau aulkiganetik bere gorputza; ta ara an, bizkorrik doa bizkorrik bere llobearen eskuan mosu bat ichiten.

Ta ara an llobeat, irri-barrecho (1), gozo gozo bategaz ezpanak iantzita, eskuak luze luze ipiñita icharoten deutso.

¡Ai! baña ¡ene bada! ¿zer da iazo dana?... ostaz ostaz, nekez nekez eldu da amama Kassinto jaunaren eskuagana... Jaussi-aiñik izan ei da, ta, abade barriak eldu ezpaeutzan.... iaussi baño len eskuan artzen ezpau....

— Pozak ill bear nau, Kassinto.... Zamiña ta atsekabea iragoten ikasi neban anchiña, zure aitaita Peru ill zanetik gora batez be... ondo dakit... ¡ai, bera gaur bizi izan bazan!... gaur illgo zan pozaren pozez.... Baña ¿zer da au, Kassinto? poz onen olatu zapladatsuak igaroteko, eztauko naiko indarrik nire biotzak.... aspaldion negarra izan dau, gaur-arte, ianari ta edari-eta:... ¿Biarko mezea Aitaita Perugaitik, bere arimearen onerako, esango dozula ezeustazun esan?... Esaizu, esaizu bion arima-kaitik meza gozo ori... Artu zuk nire mosua, Kassinto, ta ordu berean artu bei Jaunak berak eskatuten deustan arimea.....

(1) *Irri-barrecho* = sonrisita.

IV

Berba onen ostean, mosu andi andi baten zarata legun gozo gozoa entzun zan eleisan.

Eta mosu onegaz batean urten eban Maintonen abotik bere arima ederrak.

Olanche ill zan Mainton, pozaren ugaritasunaren indarrez.

¡Zorionekoa Maintoncho legez pozaren pozez ilten dana!

Betiko poza aurkituko dau poz onen urrengo.

PAULO ZAMARRIPA TA URAGA.

